


# LOS TESTIGOS DE PUTIN

LETONIA, SUITZA, TXEKIAR ERREPUBLIKA | 2018 | 102 MINUTU
JATORRIZKO BERTSIOA, ERRUSIERAZ; AZPITITULUAK, GAZTELANIAZ

## GAIA

Aro berri baterako sarrera izango balitz bezala, 1999ko abenduaren 31n, Errusiak presidente berria ezagutu zuen, gaur egun ere badirauena: Vladimir Putin. Nola lortu zuen boterea? Nola bihurtu zen munduko politikaririk eragingarri eta eztabaidagarrienetako bat?

Mikhail Gorbatxov Sobietar Batasuneko idazkari nagusi ohiak, Boris Jeltsin Errusiako lehen presidenteak eta Putinek berak emandako testigantzen bidez, Vitali Manski zuzendariak azaltzen du egungo presidentea nola heldu zen boterera eta nola eutsi dion bi hamarkadaz. 2000. urtean grabatutako artxibo-material pertsonalaren eta Putinen oso gertuko lekuko paregabe batzuen bidez, Putin boterera eraman zuen Oinordeko Operazioaren benetako kausak eta ondorioak erakusten dizkigu Vitali Manskik. Politikariaren lehen kanpainaren jarraipena egin eta filmatzeko kontratatu zuten Manski. Handik laster, Putin gaur egungo lider polemikoenetako bat bihurtu zen. Denboraren kapsula diruditen grabazio zaharren bidez, ikusiko dugu Putin, bere hurbilenekoekin batera, boterera nola eta nori esker iritsi zen.

## ZUZENDARIA

Vitali Manski (Lviv, gaur egungo Ukraina, 1963) VGIKn graduatu zen, Guerasimov Zinematografiako Institutu Nazionalean, eta zinemagile eta dokumental-ekoizle errusiar txalotuenetako bat bihurtu zen. Zuzendari gisa, 30 film baino gehiago filmatu ditu. Mundu osoko jaialdietan proiektatu dituzte, eta hainbat aldiz saritu. Renata Litvinova, Alexander Rastorguiev, Sergei Miroxnitxenko, Dmitry Zhelkovsky y Sergei Loznitsa zuzendarien filmak ere ekoitzi ditu. 1996an, Sobietar Batasun ohian 1930eko hamarkadatik 1990eko hamarkadara bitartean filmatutako bideo amateurren artxibo pertsonalak erreskatatzea helburu zuen proiektu bati ekin zion. Errusiako dokumental onenei ematen zaien Lavrovava Vetv sari nazionalaren ekoizlea da. . Vitali Manski Letoniara joan zen 2015ean.

## FITXA TEKNIKOA

**Zuzendaritza:** Vitali Manski
**Ekoizpena:** Natalia Manskaia, Gabriela Bussmann, Filip Remunda, Vit Klusak
**Edizioa:** Gunta Ikere
**Soinua:** Anrijs Krenbergs
**Musika:** Karlis Auzans
**Enpresa ekoizleak:** Studio Vertov, Golden Egg Production, Hypermarket Film
**Banaketa:** DocsBarcelona Distribution

www.eldocumentaldelmes.com

▸ DÓNDE Y CUÁNDO

# LOS TESTIGOS DE PUTIN

LETONIA, SUIZA, REPÚBLICA CHECA | 2018 | 102 MINUTOS
V.O. EN RUSO, SUBTITULADA EN CASTELLANO

## LA HISTORIA

Como si se tratara de la entrada a una nueva era, el 31 de diciembre de 1999 Rusia conocía a su nuevo y todavía hoy presidente: Vladimir Putin. ¿Cómo fue su ascenso al poder? ¿Cómo se convirtió en uno de los políticos más influyentes y controvertidos del panorama mundial?

A través de testimonios como el antiguo secretario general de la Unión Soviética Mijail Gorbachov, el primer presidente de Rusia Boris Yeltsin o el mismo Putin, el director Vitaly Mansky explica la historia sobre cómo el actual presidente ascendió al poder y ha mantenido su posición durante dos décadas.
A través del material de archivo personal grabado a lo largo del 2000 y de unos testigos únicos muy próximos a la figura de Putin, Vitaly Mansky nos descubre las verdaderas causas y consecuencias de la "Operación Sucesor", el entramado político que llevó al poder a Putin. Mansky había sido contratado para seguir y filmar la primera campaña del político que pronto se convirtió en uno de los líderes más controvertidos de la actualidad.
A través de antiguas grabaciones que actúan como verdaderas cápsulas del tiempo, revisitamos la historia sobre cómo Putin, junto con su círculo íntimo, ascendió al poder y quiénes fueron los actores que lo hicieron posible.

## EL DIRECTOR

Vitaly Mansky (Leópolis, actual Ucrania, 1963) se graduó en el VGIK, la Universidad Panrusa Guerásimov de Cinematografía, y se convirtió en uno de los cineastas y productores de documentales rusos más aclamados. Como director ha filmado más de 30 películas que se han proyectado en festivales de todo el mundo y han sido premiadas en distintas ocasiones. También ha producido películas de directores como Renata Litvinova, Alexander Rastorguyev, Sergey Miroshnichenko, Dmitry Zhelkovsky y Sergei Loznitsa. En 1996 comenzó un proyecto que consistía en rescatar archivos personales de vídeo amateur filmados en tiempos de la antigua Unión Soviética desde los años 30 hasta los 90. Es productor del premio nacional Lavrovava Vetv, que se otorga a los mejores documentales rusos. Vitaly Mansky se mudó a Letonia en 2015.

## FICHA TÉCNICA

**Dirección:** Vitaly Mansky
**Producción:** Natalia Manskaya, Gabriela Bussmann, Filip Remunda, Vít Klusák
**Edición:** Gunta Ikere
**Sonido:** Anrijs Krenbergs
**Música:** Karlis Auzans
**Empresas productoras:** Studio Vertov, Golden Egg Production, Hypermarket Film
**Distribución:** DocsBarcelona Distribution